

Legebiltzarreko erabilera-plana

Hitzaldia antolatzerakoan, eskema bat egitea erabaki genuen eta eskema horrek alfabetoaren ordena har zezakeela otu zitzaigun, zuen aurrean aurkeztu behar dugun erabilera-planari nolabaiteko ordena emate aldera.

Hori horrela, letraz letra joango gara azalpenean, A-tik Z-ra.

A dministrazioa

Legebiltzarreko erabilera-plana zen hitzaldiari behin-behinean eman genion izena eta hura da behin betiko gelditu zaiona. Baina, izenburua irakurrita, baten batek pentsa lezake Legebiltzarrak duen alde politikoaz edo parlamentarioaz hitz egitera gatozela, egunero hedabideetan agertzen diren politikoez, ohiko eztabaidez, legeez, hauteskunderiez...

Ez da hura izango hitzaldiaren ardatza. Legebiltzarreko erabilera-planak duen izen ofiziala hau da: Eusko Legebiltzarreko Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plana (2008-2012).

Eusko Legebiltzarreko organoak eta talde parlamentarioak planetik kanpo gelditu ziren, hala erabaki baitzen plana egiterakoan. Jakina, Administrazioaren eta Parlamentuaren arteko loturak eta ukitze-aldeak saihestezinak dira eguneroko lanetan eta jardueretan eta, horregatik, elkarri eragiten diote batzuen eta besteen hizkuntza-jokabideak.

B ilkura eta Batzordeak

Osoko bilkurak eta batzordeak dira Legebiltzarraren alderdirik ezagunena. Edo, hitz bakar batean esateko, politikoak dira Legebiltzarraren irudirik ezagunena. Haien inguruan antolatzen da gure jarduna: haiek aurkeztutako ekimenak erregistratu, tramitatu, erredaktatu, itzuli, argitaratu, egikaritu...

Administrazioaz hitz egitera etorri bagara ere, arestian aipatutako loturak gogoan, osoko bilkuretan eta batzordeetan euskararen erabilera zein den esango dizuegu, eguneroko jardun politikoak zelan eragiten digun erakusteko. Izan ere, diagnostikoa egitean AMIA definitu eta indargunetzat jo genuen jarduera parlamentarioa: "Erakundearen inguruko errealitate soziolinguistikoa nolakoa, halakoa izango da bertako euskararen erabilera. Gero eta legebiltzarkide euskaldun gehiago dago; gero eta ekimen gehiago aurkezten dira euskara hutsean; gero eta gehiago dira euskaraz lan egin nahi duten legebiltzar-taldeak. Hori horrela, gero eta altuagoa da euskararen erabilera Legebiltzarrean."

Eskura ditugun datuen arabera, hau izan zen euskararen erabilera VII. Legegintzaldian (2001-2005)¹: osoko bilkuretako hitzaldietan, % 11,7 egin zen euskaraz; batzordeetako hitzaldietan, % 15,2.

VIII. legegintzaldiari dagokionez (2005-2009), 2007an berriz aztertu zen osoko bilkuretako erabilera: % 20. Bigarren azterketa honetan, talde parlamentarioen arteko eztabaidak eta Jaurlaritzari egiten zaion kontrol parlamentarioarako interpelazioak eta galderak bereizi ziren.²

Talde parlamentarioen arteko eztabaida bakarrik aztertuta, % 25era igotzen da euskararen presentzia.

Idatzizko funtzionamenduari dagokionez, azterketarik egin ez bada ere, pertzepzioan oinarriturik, esan dezakegu bi taldek bakarrik aurkezten dituztela euren ekimenak euskara hutsean ia beti. Gainerako bostek,

¹ Datuak lortzeko, legegintzaldi hartako bilkura-egunkariak eta batzordeen bilkuren aldizkariak aztertu ziren.

² Talde parlamentarioen arteko eztabaidetan talde guztiek parte hartzen dute, hura da, nolabait esateko, berezko eztabaida parlamentarioa. Jaurlaritzaren gaineko kontrolari dagokionez, oposizioko taldeek egiten dute gehienbat, eta Jaurlaritzako sailburuek ere parte hartzen dute.

salbuespenak salbuespen, erdara hutsean jarduten dute ekimenak aurkeztean.

Copyright

Erabilera-planaz hitz egiten hasi aurretik, aitortu behar dugu zeintzuengandik ikasi genuen, zein planetatik "kopiatu" genuen, nolabait esateko, ez baikinerekin hutsetik abiatu, beste batzuek izandako esperientziatik eta erakutsitako bidetik baizik.

Aitortu behar dugu ondoko hauen kopia-eskubidea *urratu* genuela, haien baimena lortu eta gero, jakina. Bego gure esker ona, beraz, ondoko erakundeetako euskara-teknikariei: Getxoko eta Bergarako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Eta, ez ditugu ahaztu nahi, haiek ere lagungarriak izan baitziren, EMUN kooperatibak gurean egindako lana eta irakutsitako bidea.


Diagnostikoa

Harira etorrita, egoeraren diagnostikoa izan zen egin genuen lehenengo urratsa. Zortzi ataletan banatu genuen azterketa: derrigortasun-daten betetze-maila, hizkuntza-eskakizunen betetze-maila, ezagutza-maila, arduradunen euskara-maila, hizkuntza-paisaia, informazio-sistemak, barneko eta kanpoko harremanak eta lan-urratsak.


Lehen bi atalei dagokienez, hauek dira diagnostikoak emandako datuak:

Derrigortasun daten betetze-maila: Eusko Legebiltzarreko lanpostuen zerrendan 129 lanpostu agertzen dira. Horrela, lanpostu-kopuruari dagokion soziolinguistikazko ezarpen eremuko indizea aplikatuz (% 40,74), hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa izan behar duen lanpostu-kopurua 53 da.

Derrigortasun-data ezarrita daukaten lanpostuei dagokienez (55), 40 lanpostutan bete da, hau da, % 72,7.



Hizkuntza-eskakizunen betetze-maila: Hizkuntza-eskakizunen betetzea: 54 lanpostu (% 41,8).



E Erabilera

Horraino ezagutzaren gaineko datuak. Diagnostikoaren barruan, erabilera zelakoa zen jakin nahi izan genuen, langileek euren harreman formaletan eta informaletan zein hizkuntza erabiltzen zuten. Lau arlotan banatu genuen inkesta: telefono-deiak, mezu elektronikoak, ujierren harrera publikoari eta administrazioaren barruko eskaera informatikoak.

Telefono-deien eta mezuen gaineko azterketa egiterakoan, euskalduntzat edo ia-euskalduntzat jo genituen langileengana jo genuen. Haien telefono-elkarrizketak eta bidali edo jasotako mezuak aztertu genituen, zein hizkuntza erabiltzen zuten eta mintzakidea euskalduna zen ala ez. Jakina, pertsona bat noiz den euskalduna kontu subjektiboa bihurtu zen: guretzat euskaldunak edo ia-euskaldunak ziren pertsonak, 6. urratsa gaindituta zeukatelako, adibidez, erdaldunak ziren lagineko zenbait subjekturen ustez.


Harrera-hizkuntzari dagokionez, bi neurketa egin genituen. Lehendabizikoan ohartu baikinaren herritarrena izaten zela lehendabiziko hitza eta herritarrak erabilitako hizkuntzaren arabera erantzuten zuela langileak. Bigarren neurketan, lehendabiziko hitza ujierrek egiteko eskatu genien, eta hitz hori euskaraz izateko, ea emaitzak aldatzen ziren. Ez zen aldaketa adierazgarririk izan.

Administrazio-barruko eskaera informatikoez bezainbatean, baimen-eskaerak aztertu genituen, Antolaketa eta Giza Ballabideen Zuzendaritzari tramitatu beharreko eskaerak bi hizkuntzetan zeuden prestatu, euskaraz batetik eta erdaraz bestetik. Langileak erabakitzen zuten zein hizkuntza erabili.


Hona datuak:

Barne eta kanpoko harremanak:


Telefono-deiak: dei-egilea euskalduntzat jo denean, elkarrizketa gehienak euskaraz dira Eusko Legebiltzarreko Administrazioan.




Mezuak: mezu-igorlea euskalduntzat jo denean, mezu gehienak erdaraz dira Eusko Legebiltzarreko Administrazioan.



Harrera-hizkuntzak:




Baimenak:



Funtzioak

Eusko Legebiltzarreko Administrazioentzako plan estrategikoa egiteko lanen ondorioz, Administrazioko zerbitzuen eta langileen funtzioak aztertu, deskribatu eta argitaratu ziren 2005eko urtarrilean. Prozesu haren emaitza, Administrazioaren egungo egitura dugu:




Geroago azalduko ditugun atalen sailkapena eta izendatzea egitura horri begira egin zen, zuzendaritza, zerbitzu, atal edo unitate bakoitzaren ezaugarri linguistikoak eta lan-harremanak aztertuta.

Gaitasuna

Hizkuntza-eskakizunen betetze-mailak langileen %42ak lanpostuko HE beteta zeukala frogatzen zigun, baina eguneroko pertzepzioak erakusten zigun askoz handiagoa zela langileen gaitasuna, lanpostuko HE egiaztatu barik zenbait langilek euskaraz hitz egiteko edo lan egiteko arazo gutxi izaten zutela edota zenbait lan oinarrizko egiteko gaitasuna HEen gaineko ehunekoak erakutsitako baino handiago zela.


Pertzepzio hura datu objektiboetara ekarri nahi izan genuen: langileen euskara-mailari buruzko datuak bildu genituen taula batean bi adierazleren arabera: gainditutako HE eta ikasten gainditutako azken urratsa.

Azterketa haren arabera, egiaztatu genuen langileen %20 zegoela 6. urratsaren azpitik, eta % 10 bakarrik euskaraz ezer ez zekiena.³



³ Eta datu hura ere erlatiboa zen, zenbait langileren ezagutza-mailari buruzko daturik eduki ez arren, guk bagenekien hamar haietako zenbaitek zerbait bazekiela.

Beste datu bat ezagutu nahi izan genuen, zuzendarien eta zerbitzu-buruen euskara-maila. Hartarako inkesta bat pasatu genien, autoebaluazio bat egin zezaten. Hona datuak:



Autoebaluazioaren arabera, eta gaitasunaren lau arloetan, nahikoa ongi edo ongi egiten zuten euskaraz:

- ulertu: % 81,2
- hitz egin: % 62,5
- irakurri: % 75
- idatzi: % 49,9

Ikusten denez, gaitasun aktiboak askoz txikiagoak ziren pasiboak baino.

H

izkuntza-eskakizunak eta hautatze-prozesuak

Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioan. III. Plangintzaldia (2003-2007) izenaz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratu zuen balorazio-txostenan, gogoeta hau egin zen:

“Diagnosian zehar hobetzeko hainbat arlo identifikatu dira hizkuntza eskakizunen sistemaren gainean eta eskakizun horiek egiaztatzeko prozesuaren gainean. Ondorioz, hobetu beharreko arlo dezente proposatu dituzte lan taldeetan.

(...)

Nabarmetzen dute, batetik, lehen hizkuntza eskakizunaren maila oso baxua dela eta egunerokoan erabili ezean berehala galtzen dela; eta, bestetik, nabarmetzen dute laugarren hizkuntza eskakizunak erabilerari lotu-lotua beharko lukeela.

(...)

Bi: **egiaztapen sistemaren inguruan** aipatu dute gramatika-ezagutza neurtzeaz gain, ez ote zaion erreparatu behar ere laneko funtzioak euskaraz betetzeko beharrezko den komunikazio gaitasunari (ahozkoa zein idatzizkoa).

(...)

Lan taldeetako proposamen horiek guztiak kontuan izanda, bistan da **hizkuntza eskakizunen sistemaren ginean gogoeta egin beharko litzatekeela.**" (41-42 orr.)

Guk ez genuen gogoetaldi hartan parte hartu, baina gure egin genituen kezkok, gurean ere aski nabarmena zirelako arazoak:

- 1. HEko maila oso baxua baitzen, ez zituen langileak euskaraz lan egiteko edo zerbitzua euskaraz emateko gaitzen.
- Antzeko arazoa ikusten genuen 2. HEarekin ere.
- Hautapen-probetan lanpostuaren HE egiaztatuta zeukan jendea heltzen zitzaigun, baina haren benetako maila egiaztatutakoa baino baxuagoa izaten zen, hizkuntza ez erabiltzearen ondorioz.

Horiek horrela, eta balorazio-txostenean iragartzen zitzaigun gogoetaren zain, lanpostuetako hizkuntza eskakizunak aldatu barik utzi genituen. Hala ere, hautapen-probetan esku hartzea erabaki genuen:

- ... hautatze-probetan (...) zenbait funtzio euskaraz zein erdaraz betetzeko gaitasuna ere neurtzeko irizpideak ezarri beharko dira, herritarrak hautatze-probak hizkuntza ofizial batean zein bestean egiteko duen eskubidea ahaztu gabe.

- ... nahitaezko betekizuna izango dute hautatze-probetako epaimahaiek, hautatze-probei buruzko oinarriek hala agintzen dutenean, lanpostuko funtzioak euskaraz zein erdaraz betetzeko gaitasuna ere neurtzeko probak diseinatzea eta egitea.
- Nahitaezkoa izan behar du, era berean, Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak eta Langileen Batzordeak hizkuntzaren erabileraren normalizazioa ere kontuan hartzeak eta aztertzeak enplegu publikoaren urteko eskaintza negoziatzean edota enplegu publikoaren eskaintzako lanpostuen gaineko baldintzak eztabaidatzean.


Informazio Sistemak

Administrazioko informazio-sistemak ere aztertu genituen. Batetik, langileek erabilera, zein hitzkuntza erabiltzen zuten informazio-sistemetan; bestetik, Legebiltzarreko aplikazioen egoera linguistikoa.

Hona datuak:


Eusko Legebiltzarrean berrogeita hamabi (52) aplikazio zeuden instalatuta azterketea egin zenean (alde batera utzi ziren zuzendaritzetan euren lanak egiteko erabiltzen diren kanpoko web orriak edo datu-baseak hala nola Gizarte Segurantzarenak edo Hemeroteka+). Haietan, 3k euskarazko zein erdarazko bertsioak eskaintzen zituzten; 3 elebidunak ziren, 28k nabigazioa erdaraz ematen zuten eta 18 aplikazio erdaraz zeuden.⁴

(1)⁴ Aplikazioaren bi bertsioak daude: bata euskaraz eta beste gazteleraz; ordenagailuan norberak aukeratua jarri da.



Langileen erabilerari dagokionez, garai hartan % 100k erabiltzen zuen Microsoft-en erdarazko bertsioa.

Intraneten erabileraz bezainbatean, hau da datua:



Jardunak


-
- (2) Aplikazioa guztiz elebiduna da: nabigazio tresnak eta edukiak euskaraz eta gaztelaniaz daude. Norberak aukeratzen du hizkuntza aplikazioa erabiltzen duen bakoitzean.
 - (3) Aplikazioaren nabigazio tresnak gaztelera bakarrik daude baina testuek dituzten edukiak bi hizkuntzetan daude (datak eta antzerakoak ez ezik), eta programa baten bidez webgunean ele bitan argitaratzen dira.
 - (4) Aplikazioa gaztelania hutsean dago.

Arestian aipatu bezala, duela zenbait urte plan estrategikoa diseinatzen hasi zen Legebiltzarra. Alde batetik, lanpostu bakoitzeko funtzioak deskribatu ziren eta, bestetik, lan-prozesuak, hau da, Legebiltzarreko eginkizunak zeintzuk diren eta haiek tramitatzeko eta egiteko zer nolako urratsak egiten diren.

2005eko uztaillean onetsi zen txostena oso lagungarria egin zitzaigun erabileraren gaineko diagnostikoa egitean, jardunez jardun zein hizkuntza erabiltzen genuen zehazteko bidea eman zigulako.

Dokumentu hartan jasotako informazioaz gain, langileekin banan-banan izan ginen, dokumentuko informazioa osatze aldera.


Prozesu hauek definitu ziren:



Guztira, 31 prozesu. Prozesu bakoitzaren barruan bereizketan hau egin genuen:

- **Lan-jardunak**, lan-prozesu bat osatzen duten tramite guztiak dira (guztira 68 lan-jardun).
- **Lan-urratsak**, lan-jardunaren barruan, administrazio-ekintza bati hasiera ematen zaion unetik azken ondorioa eragin bitartean sortzen diren ahozko harremanak eta dokumentuak dira. Guztira, 377 lan-urrats.

Lan-urratsetan zein hizkuntza erabiltzen zen aztertuta (lan-urrats guztietan ez zen definitu, batzuk mekanikoak direlako), argi gelditu zen nagusiki erdaraz lan egiten dela eta oso lan-urrats gutxi egiten direla euskara hutsean:



Komunikazioa

Berebiziko garrantzia eman genion komunikazioari, plana diseinatzen ari ginenean, plana onartzean eta gerora egin diren urratsetan.

Arestian esan bezala, langile guztiekin bildu ginen banan-banan, lan-jardunei eta lan-urratsei buruzko informazioa batzeko, baina, ezinbestean, egin nahi genuen lanaren berri emateko ere.

Plana diseinatu eta gero, horrela garatu genuen komunikazioa:

- o Lehendabiziko aurkezpena Legebiltzarreko lehendakariari eta legelari nagusiari egin zitzaion.
- o Gero, Langileen Batzordeari aurkeztu zitaion plana. Langileen Batzordeak ontzat jo zuen.
- o Hirugarren aurkezpena Zuzendaritzari egin zitzaion. Zenbait ekarpen egin eta ontzat jo du.
- o Laugarrena, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

- o Hurrengoetan, 12 bilera antolatu ziren langileei erabilera-plana aurkezteko. Bileretan talde txikiak izan ziren: errazagoa eta hurbilagoa izan zen komunikazioa.
- o Azken bilera, Legebiltzarreko Mahaiarekin egin zen. Hark ere plana onetsi zuen.
- Talde Eragileak, bestalde, "Hartu hitza" izeneko jardunaldiak egitea onetsi du. Jardunaldion bidez Legebiltzarraren plana ezagutarazi nahi da, beste batzuen esperientzia ikasteaz gainera.
- Talde Eragileak egindako bileren akta intranetean eskegi da eta langile guztiei haren berri eman zaie.
- Bi hilabeteen behin, Planaren inguruan egindako lanen informazioa ematen zaie langile guztiei euskaraz eta erdaraz idatzitako idazki banaren bidez. Idazkia posta elektronikoaren bidez igortzen da.
- Talde Eragileak onetsitako lehen balorazio-txostena ere intranetean eskegi da.
- Azkenik, euskara ikasteko irizpideak eta lehentasunak finkatu dituen dokumentua ere intranetean jarri eta langile guztiei bidali zaie e-postaz.

Lagunartekoa

Legebiltzarraz eta lanaz jardun dugu orain arte, planak biei loturik baitago, helburua, jakina, Legebiltzarreko lan-hizkuntza euskara ere izateko gaitasuna baita. Baina, itsu-itsuan ibiliko ginateke edozein hizkuntzaren normalizazioan harreman ez-formalek duten garrantzia ahaztuko bagenu.

Langileon lagunartekoari ere eragin nahi izan diogu: elkarrizketa informalak, gosariak, bazkariak, ospakizunak, telefono-deiak... Haietako hizkuntza-ohitura aldatzen badugu, hurbilago egongo gara helburu nagusitik, ez baita jokabide artifiziala izango euskaraz jardutea.

Lan horretarako bi harreman mota izan ditugu kontuan:

- Ataletako harremanak: lanpostuaren kokapenak sortzen dituen harremanak. Hemen eragiteko, erabilera-taldeak antolatu ditugu.
- Langileen harremanak: norberak egin duen harreman-taldea: lagunartekoa.

Zentzu horretan, sentsibilizazio-kanpaina bat antolatu genuen, lagunartekoaz gain, lana eta legebiltzarra bera kontuan hartuta, Legebiltzarrearen izeneko L-z egindako kanpaina, non euskarazko "elea" hitzaz eta Legebiltzarrearen, Lanaren eta Lagunartekoaren I-ez jokia egiten genuen.

Kanpainan kartel batzuk erabili genituen: Legebiltzarreko Administraziooko zenbait tokitan jarri. Lehendabiziko txartela hau izan zen:



Gerora, beste hauek ezarri genituen:

zergatik ez?

Lagunartean ere Leuskaraz 😊

Eta azkenik, orriak markatzeko bat utzi genien langile guztiei mahai gainean:

L* euskaraz

📖 Ele = Ipar Euskal Herriko terminoa, hitza, hizketa edo berriketaren sinonimoa
Término utilizado en el Norte de Euskal Herria y que significa palabra, discurso, dicho

Eleak ederrak d'itu, ez ordea egintzak
Eleak ederrago lanak baino
Elerik onena, laburrena
Ele ederra, egunaren laburgarri
Zer dira **eleak, ele** baizik?
Elez ez, nahiz bai
Ele ederrari ez fida
Mutuari **elea** eman

Bazterretako **eleak** - El que dirán
Deus ez **ele** - Sin comentarios
Eleak ele - Una vez dicho lo dicho
Ele alfer - Inoportuno en el hablar
Ele eder - Elocuente
Ele eta **ele** - Hablando sin parar
Ele gaitz, **ele** gaizto - Insulto
Ele gose - Hablador, palabrero

Elebakarra
Elebiduna
Elebitasuna
Eleberria
Elefantea 🗣️

zergatik ez?

Motibazioa

Aurrekoaz gainera, beste motibazio-kanpaina batzuk antolatu ditugu urte honetan, euskarri desberdinak erabiliz. Sorpresa eta originaltasuna erabili nahi izan ditugu, misterio apur batekin inoiz ere.

Lehendabiziko kanpaina, lanorduak kontrolatzeko aplikazio sistema berriaren harira antolatu genuen. Fitxatzeko sistema berria zela eta, **Mugitu fitxa, fitxatu euskaraz** izeneko ekimena abiatu genuen partxisaren irudia baliatuz.

Kanpaina honetan orriak markatzeko paperezko bat eman zitzaion langile bakoitzari, Legebiltzarreko Administrazioako zenbait tokitan jarri ziren karteletako testu berarekin.

Bi kanpaina egin dira Microsoft-en erabileraz:


Lehenengoan e-posta erabili genuen. Lehendabizi mezu hau bidali genien langile guztiei: **Ez duzu jeinu baten laguntza behar Microsoft euskaraz jartzeko.** Ordu erdi geroago beste hau:

Desio bakar bat eta hiru pauso  **1.-** Behean,

pantailaren ezkerrean, dagoen INICIO botoia sakatuta PROGRAMAS izeneko arloa aukeratuko dugu.




2.- Kurtsorea PROGRAMAS gainean jarrita zerrenda bat zabalduko da eskuinaldean. Eraman ezazu kurtsorea OFFICE 2003 ipintzen duen lekura. Beste zerrenda bat zabalduko da.



3.- Egin klik “Configuración de idioma de Microsoft Office 2003” jartzen duen lekuan, euskara aukeratu eta zure desioa errealitate egingo da. Bigarreanean, ordenagailuak piztean agertzen den pantailaren irudia baliatu genuen. Egun batzuetan, ordenagailua piztean, irudi hau agertu zen guztietan:



Egun batzuk geroago, beste hau agertu zitzaien:



Nahitaezko datak

Euskaltzaindiak bere hiztegi batuan hau dio **derrigor** hitzari buruz: adlag. *Heg. H. baitezpada, nahitaez.* Hori horrela, tranpa txiki bat egin eta N-ra ekarriko dugu normalean derrigorrezko data deitzen duguna, hots, nahitaezko datak.


Derrigorrezko datak finkatzerakoan, indize batekin jokatu izan da kasu gehienetan. Indizearen kalkulua egiteko erabili behar diren erreferentziak guztiz ezagunak dira, eta guztiz ezaguna da erreferentzia horiek EAEko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikako datuetatik lortzen direla. Plan honi begira, 2001eko estatistikako datuak erabili behar genituen, eta haien arabera, lanpostuen % 44 zen bete beharreko indizea.

Legebiltzarrak, baina, erakunde publikoa bada ere, politikoeekin du harremanik handiena: legebiltzarkideak dira gure bezeroak plan estrategikoaren terminologia erabailiz. Horregatik, legebiltzarkideetan euskaldunen kopurua aintzat hartzea erabaki genuen derrigorrezko daten kopurua finkatzerakoan.

Legebiltzarkideek emandako datuak eta gure ezagutza baliatuz (azken finean haiekin egunero ibiltzen gara lanean eta), esan dezakegu hauek direla azken hiru legegintzaldietako ehunekoak:

- VI. Legegintzaldian (1998-2001): % 54k
- VII. Legegintzaldian (2001-2005): % 64k
- VIII. Legegintzaldian (2005-2009): % 56k

Datu horiek gogoan, Biztanleria Indizeak ematen zigun % 44aren gainetik jokatzera erabaki genuen, eta, modako beste hitz bat erabiliz, estrategikotzat jotzen genituen postuetan nahitaezko data ezarri genuen, postu horietan dauden langile guztiekin hitz egin eta gero.



hiturak

Ezagutza handia, gaitasun handia... Parametro egokietan mugitzen ginela ikusi genuen, eta hala ere, erdaraz lan egiten genuen eta erdaraz bizi ginen gehienbat. Ez dugu ezer berririk esango ohiturek gure hizkuntza-jokabideetan duten garrantzia azpimarratzen badugu. Berbarako, toki askotan ikusitako jokabidea: itzulpen-zerbitzuko langileei beti euskaraz egiten dion jendea beste harreman batzuetan erdaraz aritzen da nahiz eta euskaldunak izan.

Garrantzi handiko kontua iruditu zaigu ohituretan eragiteko lana hasiera-hasieratik. Hartarako bi ekimen bultzatu ditugu:

- Mintzalagunak
- Pausoz pauso, orriz orri, euskara

Lehenengoaz gauza gutxi esan behar dugu, oso ezaguna da-eta. Esan, besterik ez, pasa den urtean 40 lagun ibili zirela hirunaka eta launaka elkarrekin gosaltzen eta euskara erabiltzen; aurten, berdin ari gara.

Pausoz pauso, orriz orri, euskara ekimena literaturari edo irakurzaletasunari lotuta dago. Hamabost bat lagun, liburu bat aldeztatik erabaki eta irakurrita, elkartzen gara noizean behin (ordu beteko saioa) eta liburuaz egiten dugu berba, modu informalean, lagunartekoan. Ekimen horretan parte hartzen duen lagun batek esan bezala, ordu horretan *errealismo magikoan* sartzen gara; gero, lanera itzuli eta bestelako *errealismoarekin* egiten dugu topo.

Prestakuntza

Literaturari lotutako ekimenarekin, bestalde, euskara-ikastaroetan parte hartzen duten eta ez duten langileen prestakuntza ere osatu nahi genuen: lehendabiziko ariketa liburua irakurtzea da.

Baina ez dugu prestakuntza alde batera utzi. Hiru arlotan jardun dugu:

1. Euskalduntzea.- 2007-08 ikasturtean 2. eta 3. mailako talde bana sortu genuen Legebiltzarrean, eta han dira egunero (ostiraletan libre, osoko bilkurak dira eta), goizeko 8:30etatik 10:30etara. Ekimenaren bidez, euskara ikasteaz gainera, gela barruan sortzen den dinamika (euskaraz jardutea), kanpora (lanpostuetara) atera nahi izan dugu.

2. Laneko jarduerak euskaraz egiteko ikastaroak.- Puntualak dira, laneko jarduera bati lotuak, eta jarduera hori euskaraz egiteko izan daitekeen gaitasun-defizitari aurre egitekoak. Berbarako, batzordeetak aktak euskaraz erredaktatzea: bi legelarik eta lau administrarik parte hartu zuten.

R eziklatzea

Hirugarren arloak garai batean euskara ikasi eta galduz joan diren langileen ingurua antolatu dugu, erreziklatzea helburu. Ekimen hau aurre jarriko da martxan, eta Es-prest hizkuntza tailerrak deitu diogu. Gutxi gorabehera 45 minutuko saioak izango dira, alde aurretik prestatutako programa baten inguruan, eta langileek seinatu dituzten defizitak, ahaztutako kontuak (aditzak, batez ere) edo lanean detektatutako akatsak (banandutak daude, ez ditugu paperik sinatu...) lantzeko erabiliko ditugu.

S ailkapena

Planaren bidez, ezin bestela egin, Legebiltzarreko Administrazio atalen sailkapena eta izendatzea egin dugu. Gurean ez zegoen definituta zeintzuk ziren jendeaurreko atalak, gizarte mailakoak, orokorrak edo bereziak; halako sailkapenik egin gabe zegoen.

Arestian aipatu dugun lan-prozesuen gaineko datuen azterketarako, lehenago ere esan dugu, langileekin banan-banan elkartu eta lan-urrats bakoitzen zeintzuek parte hartzen zuten eta norentzat egiten ziren definitu genuen. Hala, jendeaurreko atalak, gizarte izaerakoak eta abarrekoak definitu ditugu.

Guztira, Legebiltzarrean, hau da sailkapena zenbakietan:

- Jendeaurrekoak: 10 atal
- Gizarte-izaerakoak: 3 atal
- Izaera orokorrekoak: 9 atal
- Izaera berezikoak: 3 atal

Sailkapena eginda, eta hizkuntzaren gaineko datuak eskuan, atalen izendapena egin (atal elebidunak zeintzuk diren) eta lehentasunak ezarri genituen hurren.

Talde eragilea

Talde eragilea da plana aurrera eramateko sortu dugun egituraren atalik inportanteena. Talde eragilean ondoko hauek daude:

- Legebiltzarreko lehendakaria
- Legelari nagusia
- Zuzendariak
- Atal elebidunetako buruak
- Erabilera taldeen ordezkariak
- Langileen Batzordearen ordezkariak

➤ Hizkuntza-teknikaria

Eta hauek haren eginkizunak:

- ✓ Erabilera-planean proposatutako helburuak eta normalizazio-neurriak / jarduera-planak martxan jartzea.
- ✓ Erabilera planaren helburuak lortzeko behar diren tresnak, baliabide eta bitartekoak aztertu eta bideratzea.
- ✓ Planaren segimendua egitea (sei hilean behin ebaluazio-txostena): proposatutako neurrien betetze-maila aztertzea eta egokitzapen-neurriak proposatzea.
- ✓ Euskalduntze/trebakuntza/erabilera-taldeetan egiten diren proposamenak aztertzea.
- ✓ Planetik sortutako egoerei/arazoei erantzuna ematea edo eskaera Legebiltzarreko Mahaiari edota Jarraipen-batzordeari bideratzea, hala dagokionean.

Talde Eragilearekin batera, arestian aipatu dugun egituraz bezainbatean, beste hauek ere aurreikusi ditu planak:

- ✓ Jarraipen Batzordea: Antolaketa eta Giza Baliabideen zuzendaria, hizkuntza-teknikaria, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ordezkaria eta, beharrezkoa ikusten bada, HAEEn eta HABEren ordezkariak.
- ✓ Erabilera-taldeak: 5 sortu dira.
- ✓ Euskalduntze-taldeak: lehen aipatutako 2 taldeak.
- ✓ Trebakuntza-taldeak: puntuala eta arestian esan bezala, lan-prozesu baten inguruakoak.

U
h! Uf!

Zenbait langileren aurpegia ikusita, euskara dela eta haiengana hurbiltzen garenean, badirudi egundoko sustoa hartu dutela, eta, egia esateko, haiengandik alde eginda jartzen dutena ere ikusita, "Uf! hau nekea!" pentsatzen dutela iruditzen zait.

Uh! Eta Uf! onomatopeiak hartu ditugu U-ra helduta, baina, txantxak alde batera, u-z hasten diren beste hitz batzuk azpimarratu nahi genituzke puntu honetan: ulertzea, ulertaraztea, urteak, umiltasuna eta umorea.

Ukertzea jendearen kezkek eta beldurrak, euskararen erabilerak kasu gehienetan lanarekin lotzen baita, eta hala da, eta lana beharrarekin, eta beharra... Horregatik ulertzeko ahalegin egin behar da, ematen diren pausoak langile guztiekin diseinatzea, adostea, betetzea... Langileak izan behar du prozesuko protagonista nagusia, hura gabe ez baita normalizatzerik izango.

Baina, haiez kezkek ulertzeaz batera, ulertarazi ere egin behar zaie prozesua aurrera eramateko erabakia hartu dela, euskararen erabilera normalizatzea aurrera eraman behar dugun prozesu bat dela ulertarazi behar zaio langileari (eta zuzendariei edo buruei). Pedagogia lan handia egin behar dugu; Kike Amunarrizi behin entzun nion bezala, kafe asko hartu behar dira euskararen normalizazioaren inguruan, patxadaz.

Urteak beharko dira euskararen erabilera gurean normalizatzeko. Izan ere, urteak, jendearen adina, alegia, kontuan hartu beharreko beste faktore bat da: adina dela-eta, zenbait lanpostu estrategikoko langileek euskara ikastea borondatezko kontua izango da (nahiko erantzun positiboa egon da) eta ahalegin handikoa (langileen aldetik, esan nahi dugu).

26 urte pasa ditu Eusko Legebiltzarrak, 26 urte eta lehendabiziko plana iaz onetsia da. Orain arte ez da erabilera normalizatzeko inolako lanak egin, ezagutzera begira jardun da eta zerbitzu-hizkuntza izateko lanak egin dira (elebitasuna argitalpenetan, web orrian...). Ikastaroak egiteko

baimenetan ere modu askotara jokatu da, planik gabe, jarraipenik gabe, ikasitako praktikara eramateko planifikaziorik eta ia biderik gabe... Zenbait gauza ez dira ondo egin, eta langileek badakite; zenbaitek euskara ikasteko liberazioa hartu eta hartu jardun du eta gero euskara bazter utzi, eta langileek badakite; zenbaitek...

Horregatik, umiltasuna ere behar da erakunde gisa: gaizki egin direnak, gaizki ulertu edo interpretatu direnak, gaizki... -ak guztiak onetsi, umiltasunez onetsi, eta etapa berri batean gaudela sinetsi eta sinestarazteko lanak egin, goi-goitik hasita.

Eta umorea ere beharko da, lan honetan etsipenak jango ez bagaitu.

Xirmi-xarma

Iparraldeko hitza da **xirmi-xarma** eta aztikeria izan nahi du. Ez dago hitz magikorik prozesu honetan, lana da bidea eta ilusioa. Ilusioa egiten ari garen lanak pixkanaka emaitza dakarrela ikustean, adibidez:

Aktak: 2008ko irailetik aurrera, zenbait akta euskaraz erredaktatzen dira; lehenengo aldiz Eusko Legebiltzarrean.

Bilkuren egunkariak: Lehen argi eta garbi ikusten zen erdara zela gure lan-hizkuntza, jatorrizko hizkuntza ezkerreko zutabearen argitaratuta, administrazioan egiten ziren ohar guztiak erdaraz joaten ziren, nahiz eta legebiltzarkidearen hitzaldia euskaraz izan. Orain, oharrak euskaraz sartzen dira eta itzuli, itzuli behar denean, erdarara itzultzen dira.

Zenbait atalen arteko lan-orriak edo lan-idazkiak euskara hutsean bidaltzen dira, baita langileak euskaraz ez dakienean ere (zenbait kasu erraza dira, askotan erabiltzen diren formulazioak).

W www.parlamento.euskadi.net

Amaitzera gatoz eta, zalantzarik edo gure erakundea hobeto ezagutzeko gogorik gelditu bazaizue, goiko hori da gure web orriaren helbidea, hor daukazue gure lanari buruzko daturik eta baita ia hasieratik alde batera utzi ditudan legebiltzarkideen jardunari buruzkoa ere.

Z erbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza

Besterik gabe, Z-ra heldu gara eta, horiek dira euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gainera inoiz lan-hizkuntza ere izan dadin gurean darabilgun plana.